



NAZIOARTEKO ZUZENBIDE PRIBATUA
EUOPAR NAZIOARTEKO ZUZENBIDE PROZESAL ZIBILA:
SISTEMA APLIKAGARRIEN IDEIA OROKORRAK
(NAZIOARTEKO ESKUDUNTZA JUDIZIALA)

Unai BELINTXON MARTIN

AURKIBIDEA: I. Nazioarteko tresnak eta nazioarteko eskuduntza judiziala: 1. Egungo marka legala.-2. Nazioarteko tresna legalak.- Tresna legal sinpleak eta bikoitzak edo dualak.-**II. Kontseiluaren 1215/2012 Erregelamendua: Ezaugarri Orokorrak:** 1. Sarrera.-2. 1215/2012 Erregelamendua: Oinarritzko ezaugarriak.-**III. 1215/2012 Erregelamendua. Anti-Suit injunctions eta Forum Non Conveniens:** 1. *Anti-Suit injunctions*.-2. *Forum Non Conveniens*.-**IV. 1215/2012 Erregelamenduko arauak: interpretazio uniforme eta judizio aurreko errekurtoa**.-**V. 1215/2015 Erregelamendua beste Nazioarteko Hitzarmenekin dituen harremanak**.- **VI. 1215/2012 Erregelamenduaren aplikazio eremu espaziala:** 1. Estatu kideak.-2. Estatu kide bakoitzaren lurraldearen zehaztapena.-**VII. 1215/2015 Erregelamenduaren aplikazio denboraren eremua**.-**VIII. 1215/2012 Erregelamenduaren aplikazio materialaren eremua:** 1. Azalpen orokorrak.-2. Nazioarteko auziak.-3. Material zibil eta merkataritza materietako auziak.-**IX. 1215/2012 Erregelamenduaren aplikazio eremu pertsonala**.-**X. Nazioarteko Eskuduntza Judiziala 1215/2012 Erregelamenduan**.-**XI. Foru eksklusiboak:** 1. Ezaugarriak eta materien harremanak.-2. Berariazko kasuak: Ondasun higiezin errentamendu kontratuak.- 3. Sozietate materia.-4. Ukiezinak diren inskripzio eta propietateak.-**XII. Ageriko sumisioaren forua**.-**XIII. Ezkutuko sumisioaren forua**.-**XIV. Demandatuaren helbidearen forua**.-**XV. Materia arrazoizat duten foru bereziak**.-**XVI. Behin-behineko eta kautelazko neurriak hartzeko foruak**.-**XVII. Kompetenziaren ofiziozko kontrola 1215/2012 Erregelamenduan**.-**XVIII. Auzibitartea 1215/2012 Erregelamenduan**.- **XIX. Elkar loturik dauden demandak 1215/2012 Erregelamenduan**.-**XX. Nazioarteko arbitraje pribatua eta 1215/2012 Erregelamendua**.-**Bibliografia.**

I. Nazioarteko tresnak eta nazioarteko eskuduntza judiziala

1. Egungo marko legala

Espainiar auzitegien nazioarteko eskuduntza judiziala ezartzerako garaian, Espainian nazioarteko eskuduntza judizialeko arautegi (nazioarteko zein barneko arautegiak) ugari indarrean daudela kontuan hartu beharra dago. Horregatik hainbat aspektu aintzat hartzea ezinbestekoa da:

(1) *Indarrean dauden nazioarteko lege-tresnen gailentasuna barne arauen aurrean*. Honela ezartzen dute Botere Judizialeko Lege Organikoko (hemendik aurrera *BJLO*) 21. artikulua, baita Espainiar Konstituzioko 96.I artikulua ere. Nazioarteko tresna aplikagarri hauek izango dira espainiar auzitegi eta autoritateen nazioarteko eskuduntza judizialaren inguruan erabakiko dutenak.

BJLOko 21. artikulua: *1. Los Juzgados y Tribunales españoles conocerán de los juicios que se susciten en territorio español entre españoles, entre extranjeros y entre españoles y extranjeros con arreglo a lo establecido en la presente Ley y en los Tratados y Convenios Internacionales en los que España sea parte. 2. Se exceptúan los supuestos de inmunidad de jurisdicción y de ejecución establecidos por las normas del Derecho Internacional Público.*

Espainiar Konstituzioko 96.I artikulua: *Los Tratados internacionales válidamente celebrados, una vez publicados oficialmente en España, formarán parte del ordenamiento interno. Sus disposiciones solo*





podrán ser derogadas, modificadas o suspendidas en la forma prevista en los propios Tratados o de acuerdo con las normas generales del Derecho Internacional.

(2) *Barne produkzioko espainiar arauen izaera subsidiarioa.* Nazioarteko tresnak aplikagarri ez diren nazioarteko testuinguru pribatuan agertzen diren kasuentzako, nazioarteko eskuduntza judiziala BJLOren bitartez finkatu beharko da, zehazki bere 22. artikuluan agertzen duenarekin bat eginez. Modu honetan, barne produkzioko nazioarteko eskuduntza judizialeko arauak izaera subsidiario izatera pasa direla esan genezake, soilik Espainian indarrean dauden tresna nazionalak aplikagarri ez diren kasuetan ezarriz (2011ko irailaren 20ko Guadalajarako Audientzia Probintzialeko epaia).

(3) *Jurisprudentziaren praktika okerra.* Oinarrian doktrina zientifikoak jurisprudentziari egiten dion kritika da, bereziki nazioarteko tresnen gailentasuna eta barne produkzioko arauak subsidiarioak izateren arteko bereizketa argia ez egiteagatik (*totum revolutum*).

2. Nazioarteko lege-tresnak

Espainian nazioarteko eskuduntza judiziala arautzen duten hainbat lege-tresna indarrean daude, besteak beste:

(1) *EBko Erregelamenduak.* Europar Batasunak bereganatutako eskumenekin bat eginez, gero eta gehiago dira Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko arauak biltzen dituzten tresna europarrak. Honela adibidez honako Erregelamenduak ditugu: 1215/2012 Erregelamendua, 2201/2003 Erregelamendua (ezkontzak eta aitatasun-amatasun erantzukizunak), edota 1346/2000 Erregelamendua (kaudimengabeziaren prozeduren ingurukoa).

(2) *Nazioarteko Hitzarmen aldeaniztunak.* Gaur egunean ugariak dira, gehiengoak materia espezifikoz arduratuz. Besteen artean, 1956ko maiatzaren 19ko Genevako Hitzarmena dugu (CMR), nazioarteko eskuduntza judizialaren inguruko 31. artikulua.

(3) *Nazioarteko Hitzarmen aldebikoak.* Gutxi dira, baina egon badaude. Besteak beste Espainia eta Errumaniaren arteko 1997ko azaroaren 17ko Hitzarmena dugu, materia zibil eta merkataritza materiaren inguruko eskumen eta onarpena.

3. Lege-tresna sinpleak eta bikoitzak edo dualak

(1) Sinpleak: soilik erabakien lurraldez kanpoko baliagarritasuna arautzen dute. Espainia eta Marokoren arteko 1997ko maiatzaren 20ko Hitzarmena.

(2) Bikoitzak edo dualak: nazioarteko eskuduntza judiziala eta erabakien lurraldez kanpoko baliagarritasuna arautzen dute. 1215/2012 Erregelamendua edo 2201/2003 Erregelamendua.



II. Kontseiluaren 1215/2012 Erregelamendua: Ezaugarri orokorrak

1. Sarrera

1215/2012 Erregelamendua, arautzen duen testuinguru material zabalari esker, espainiar auzitegien nazioarteko eskuduntza judiziala zehazteko garrantzia gehien duen lege-tresna da.

2. 1215/2012 Erregelamenduko oinarritzko ezaugarriak

2.1. 1215/2012 Erregelamenduaren oinarri juridikoa

1957ko Erromako tratatuak, Europar Ekonomia Erkidegoaren osagarria, mugaz harantzako merkataritza trukeen oztopo juridiko publikoak ezabatu zituen enpresen establezimendu libre eta Estatu kideen arteko zerbitzu prestazio librean. Nahiz eta oztopo juridiko publiko horiek ezabatu, Europar Ekonomia Erkidegoko Estatu kideetan erroturiko enpresen nazioarteko merkataritza ez zen guztiz ematen. Doktrinaren arabera hori guztia nazioarteko trukean agertzen zen dilemagatik eratorria zen, alegia: nazioarteko negozioetan urte askotako arau orokor bezala jokatu du Estatu batetako enpresariak beste Estatutako bezero eta enpresariez mesfidatzea, bereziki kontratua betetzen ez duten pertsona edo enpresak demandatzerako garaian zein auzitegi eta prozedura aurrera eraman behar zutenaren inguruko ezjakintasuna, baita emandako sententziaren exekuzioa beste Estatu batetan baliagarri den ala ez.

Mesfidantza horren aurrean EB lurraldean dauden enpresari eta partikularrak ez zuten bere artean maila goren batean merkataritzarik egiten. EBko Zuzenbideak nazioarteko merkataritzarako traba ziren oztopo juridiko publikoak ezabatzeko ahalegin asko egin zituen, baina errealtatean ez zituen Zuzenbide Pribatuko tresnarik. Ondorioz, materia zibil eta merkataritza materiaren eskuduntza judizial eta ebazpenen exekuzioaren inguruko 1968ko Bruselazko Hitzarmenak Estatu kide guztientzako berdina izango zen erregimen bat ezarri zuen. Modu honetan, ondare-ezaugarriko materia zibil eta merkataritzako nazioarteko eskuduntza judizial eta ebazpen judizialen lurraldez kanpoko baliagarritasunaren inguruko xedapena finkatu zen. Esan daiteke Bruselazko Hitzarmenak arrakasta handia izan zuela, Estatu kide ezberdinen arteko partikular eta enpresen arteko harreman ekonomikoak sustatzeko beharrezko segurtasun juridikoa bermatu baitzuen. Hitzarmena barne merkataritza sustatzeko ezinbesteko pieza bilakatu zen. 2000 urtean, Bruselazko Hitzarmenak aldaketa bat jasan zuen, 44/2001 Erregelamenduan bihurtuz.

44/2001 Erregelamendua Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren europartzeari esker agertu zen (*Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren* 81. artikulua):

1. *La Unión desarrollará una cooperación judicial en asuntos civiles con repercusión transfronteriza, basada en el principio de reconocimiento mutuo de las resoluciones judiciales y extrajudiciales. Esta cooperación podrá incluir la adopción de medidas de aproximación de las disposiciones legales y reglamentarias de los Estados miembros.*
2. *A los efectos del apartado 1, y en particular cuando resulte necesario para el buen funcionamiento del mercado interior, el Parlamento Europeo y el Consejo adoptarán, con arreglo al procedimiento legislativo ordinario, medidas para garantizar:*
 - a) *el reconocimiento mutuo, entre los Estados miembros, de las resoluciones judiciales y extrajudiciales, así como su ejecución;*
 - b) *la notificación y el traslado transfronterizos de documentos judiciales y extrajudiciales;*
 - c) *la compatibilidad de las normas aplicables en los Estados miembros en materia de conflictos de leyes y de jurisdicción;*



- d) la cooperación en la obtención de pruebas;
 - e) una tutela judicial efectiva;
 - f) la eliminación de los obstáculos al buen funcionamiento de los procedimientos civiles, fomentando si es necesario la compatibilidad de las normas de procedimiento civil aplicables en los Estados miembros;
 - g) el desarrollo de métodos alternativos de resolución de litigios;
 - e) el apoyo a la formación de magistrados y del personal al servicio de la administración de justicia.
3. No obstante lo dispuesto en el apartado 2, las medidas relativas al Derecho de familia con repercusión transfronteriza se establecerán por el Consejo, con arreglo a un procedimiento legislativo especial. El Consejo se pronunciará por unanimidad, previa consulta al Parlamento Europeo.
- El Consejo, a propuesta de la Comisión, podrá adoptar una decisión que determine los aspectos del Derecho de familia con repercusión transfronteriza que puedan ser objeto de actos adoptados mediante el procedimiento legislativo ordinario. El Consejo se pronunciará por unanimidad, previa consulta al Parlamento Europeo.
- La propuesta a que se refiere el párrafo segundo se comunicará a los Parlamentos nacionales. En caso de que un Parlamento nacional notifique su oposición en los seis meses posteriores a la comunicación, la decisión no será adoptada. En ausencia de oposición, el Consejo podrá adoptar la decisión.

Bruselazko Hitzarmenak jasan zituen hainbat aldaketak izan zirela bide 44/2001 (egun indarrean dugun 1215/2012 Erregelamendua) Erregelamenduan bihurtu zen. Honi esker, Bruselazko Hitzarmenean biltzen zen jurisprudentziaren zati handi bat 44/2001 Erregelamenduan baliagarria zen eta 1215/2012 Erregelamenduan baliagarria da.

2.2. 1215/2012 Erregelamenduaren izaera bikoitza

1215/2012 Erregelamendua bikoitza da, hau da, Erregelamenduak bi galdera mota arautzen ditu: 1) alde batetik, Estatu kideen auzitegien nazioarteko eskuduntza judiziala, 2) eta bestetik, erabaki judizialen lurraldez kanpoko baliagarritasuna.

2.3. 1215/2012 Erregelamenduaren izaera banakorra eta federatzailea

(1) 1215/2012 Erregelamenduan biltzen diren arauak Estatu kideen jurisdikzio-organoen artean nazioarteko eskuduntza judiziala banatzen dute. Arau horiek, eskudun zein auzitegi estatal diren zehaztea dute helburu. Era berean, zenbait kasutan arau hauek, eskudun zein jurisdikzio-organo den adierazten dute. Horregatik doktrinak Erregelamendu honen izaera banakorra eta federatzailea nabarmentzen du. Modu honetan doktrinaren gehiengoak egungo Erregelamendu hau arautegi federatua dela ulertzen dute, Europar Batasuneko auzitegien artean gai bati inguruan ezagutzeko kompetentziak banatzen dituen.

(2) 1215/2012 Erregelamenduak Estatu subiranoen arteko jurisdikzio gatazkak konpondu nahi ez dituen ikuspuntu berezi bat hartzen du. Modu honetan esan genezake 1215/2012 Erregelamendua benetako **europar espazio judizial** bat lortzeko Estatu kide ezberdinen arteko auzitegien arteko kooperazio judizialaren printzipioan oinarritzen dela. Honela, auziaz erabakitzeko Estatu kideetako zein auzitegi dauden hobekien kokaturik zehazten da. Hots, Erregelamenduak partikularrek, nazioarteko ezaugarriak dituzten harremanetan sortzen diren gatazkekin zein auzitegi zehatzetara jo behar duten zehazten du. Askotan 1215/2012 Erregelamenduan biltzen diren nazioarteko eskuduntza judizialaren inguruko arauak toki zehatz batetako eta Estatu kide zehatz batetako jurisdikzio-organo konkretu batzuei ematen dizkie beharrezkoak diren eskumenak (7.1b eta 25. artikulua beste).



2.4. 1215/2012 Erregelamendua arau juridiko bezala

Europar Batasunak eginiko Erregelamendua da, eta Erregelamenduko Estatu kide guztien autoritateengatik betearaztea eta aplikatzea beharrezkoa da. Horren guztiaren ondorioak hauek ditugu:

(1) Auzilarien jarrera: hasiera batetan behintzat ez da garrantzitsua aldeek bere jarrera juridikoa Erregelamenduan oinarritze. Auzitegiak aldeek gatazkaren aurrean duten jarrera aldera utzita, 1215/2012 Erregelamendua aplikatuko du, beti ere eztabaida hori arautuko duen tresna legala denean.

(2) *Jura novit curia*: 1215/2012 Erregelamendua ez da zertan Estatu kide guztien aldetik berretsi behar.

III. 1215/2012 Erregelamendua. *Anti-Suit injunctions* eta *Forum Non Conveniens*

1. *Anti-Suit injunctions*

Anti-suit injunctions delakoak epaile anglo-saxoiek harturiko ebazpen judizialak dira. Epaile edo auzitegi baten aurrean prozesu bat irekia dagoenean gai berdinen inguruko beste prozesu bat beste auzitegi baten aurrean hastea debekatzen dio. Epaile edo auzitegi honek harturiko ebazpena bete ezean, sartzio bat ezartzen da, orokorrean men ez egiteagatik, diruzkoa den zigorra edo askatasun debekua dakarren zigorra delarik. Honekin aldeek prozesuko gehiegizko jarrerak, asmo txarra duten prozesuak agerian uzten dituzten jokaerak, hartzea saihestu nahi da. Bereziki Ingalaterran prozesu berri baten bitartez jarraituriko prozedura judizialak atzeratu edo oztopatu nahi dituzten, gai eta materia berdinari buruzko atzerrian hasiko diren prozedurak ekidin nahi dira.

1215/2012 Erregelamenduak arautzen dituen kasuetan, auzitegi anglo-saxoiek ezin dute inolako neurri zigortzailerik akordatu, ebazpen judizial hauek 1215/2012 Erregelamenduagatik ezingo baitira exekutatu. Hots, hainbat arrazoi direla medio Erregelamenduarekin bateraezinak dira:

(1) Kasu gehienetan, 1215/2012 Erregelamenduak aldeei herrialde ezberdinen auzitegietan auzitan ibiltzea ahalbidetzen die. Ondorioz, auzitegi estatal batek ezingo du, aldebakarreko modu batetan, 1215/2012 Erregelamenduan oinarritzen den arau hau aldatu. *Anti-suit injunctions* sak onuragarri duten auzitegi estataletara jotzeko partikularren eskubide subjektiboa kaltetzen du. Esan genezake azaldutako ebazpenak Giza Eskubideetako Europar Hitzarmenean (6.1 art) jasotzen den justiziarako sarbide askatasuna ahultzen dutela.

GEEH (6.1 art): *Toda persona tiene derecho a que su causa sea oída equitativa, públicamente y dentro de un plazo razonable, por un Tribunal independiente e imparcial, establecido por ley, que decidirá los litigios sobre sus derechos y obligaciones de carácter civil o sobre el fundamento de cualquier acusación en materia penal dirigida contra ella. La sentencia debe ser pronunciada públicamente, pero el acceso a la sala de audiencia puede ser prohibido a la prensa y al público durante la totalidad o parte del proceso en interés de la moralidad, del orden público o de la seguridad nacional en una sociedad democrática, cuando los intereses de los menores o la protección de la vida privada de las partes en el proceso así lo exijan o en la medida en que sea considerado estrictamente necesario por el tribunal, cuando en circunstancias especiales la publicidad pudiera ser perjudicial para los intereses de la justicia.*

(2) Estatu kide anitzetako auzitegi ezberdinak gai berdinez ezagutzen dutenean, 1215/2012 Erregelamenduak berezko jarraibideak ditu, auzibitartea besteak beste.





(3) Nahiz eta *anti-suit injunction* partikularrei zuzendu, eta ez atzerritar auzitegiei, praktika errealean hau ez da honela gertatzen, ebazpen hauek 1215/2012 Erregelamenduak ezartzen dituen nazioarteko eskuduntza judiziala murriztu lortu nahi dute, kasu hauetarako nazioarteko inhibititu bat egitearen antzeko mekanismoa baitu. Ebazpen mota hauek onartzea gainerako Estatu kideen subiranotasuna kaltetzen dute, era berean, Europar Batasunaren euskarri diren oinarritzko printzipioak ahultzen ditu. Alegia, Estatu kideen sistema judizialen konfiantza printzipioa ahultzen du. Gainera, 1215/2012 Erregelamenduak ez du onartzen Estatu zehatz batetako auzitegiak beste Estatu kide batetako auzitegi bati gatazkaren inguruan inkompetente deklaratzeko.

(4) Erregelamenduko Estatu kide baten auzitegien aurrean prozesu bat hasten duten subjektuak arazorik gabe egin dezakete, beti ere nazioarteko eskuduntza judiziala badute. Hainbat auzitegitara jotzearen gertaerak ez du zertan prozesu iruzur bat izan behar, nahiz eta kausa bereko beste prozesu bat mantsotzeko xedearekin egin.

2. *Forum Non Conveniens*

Forum Non Conveniens Zuzenbide anglo-saxoiaren berezko instituzio bat dela esan genezake. Epaile anglo-saxoi bat nazioarteko gatazka bat judizialki ezagutzeko eskudun denean, bere kompetentzia ukatu dezake kasuak bere herrialdearekin lotura eskasak dituela ikusten badu, eta beste herrialde batetako epaile eta auzitegiak kasuaz ezagutzeko posizio egokiagoan aurkitzen badira. Doktrinaren gehiengoak *Forum Non Conveniens* 1215/2012 Erregelamenduak arauturiko nazioarteko eskuduntza judizialarekin aplikagarria ez dela ulertzen dute. Hau da, 1215/2012 Erregelamenduaren arabera epaile anglosaxoiak gaiaz ezagutzeko eskumena badu, ezinbestean kasua ezagutu beharko du. (*Forum Non Conveniens* doktrina beraz, 1215/2012 Erregelamenduarekin bateraezina da).

Besteak beste adibide moduan 1994ko ekainaren 29ko Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko Sententzia (*custom*) eta 2005ko martxoaren 1eko Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko Sententzia (*onusu*) dugu.

IV. 1215/2012 Erregelamenduko arauak: interpretazio uniforme eta judizio aurreko errekurtoa

Estatu kide ezberdinetako auzitegi desberdinak 1215/2012 Erregelamendua era ezberdin eta anitzez interpretatzearen arriskua oso handia da. Honek nazioarteko segurtasun juridikoa asko murrizten du, erkidegoko Erregelamenduak jarraituriko segurtasuna hain zuzen ere.

Egoera hau ekiditeko, Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 267 artikulua Estatu kideetako hainbat auzitegi eta autoritatek judizio aurreko errekurtoaren bitartez Europar Batasuneko Justizia Auzitegian 1215/2012 Erregelamenduaren interpretazioa eskatzea ahalbidetzen du.

Horrek guztiak, gai batez ezagutzen ari diren edozein jurisdikzio-organok Europar Batasuneko Justizia Auzitegian 1215/2012 Erregelamenduan egokitutako interpretazio bat eskatzea ahalbidetzen die, ondoren ebazpen egoki bat eman ahal izateko.

Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 267 artikulua: *El Tribunal de Justicia de la Unión Europea será competente para pronunciarse, con carácter prejudicial:*

a) sobre la interpretación de los Tratados;

b) sobre la validez e interpretación de los actos adoptados por las instituciones, órganos u organismos de la Unión.



Cuando se plantee una cuestión de esta naturaleza ante un órgano jurisdiccional de uno de los Estados miembros, dicho órgano podrá pedir al Tribunal que se pronuncie sobre la misma, si estima necesaria una decisión al respecto para poder emitir su fallo.

Cuando se plantee una cuestión de este tipo en un asunto pendiente ante un órgano jurisdiccional nacional, cuyas decisiones no sean susceptibles de ulterior recurso judicial de Derecho interno, dicho órgano estará obligado a someter la cuestión al Tribunal.

Cuando se plantee una cuestión de este tipo en un asunto pendiente ante un órgano jurisdiccional nacional en relación con una persona privada de libertad, el Tribunal de Justicia de la Unión Europea se pronunciará con la mayor brevedad.

44/2001 Erregelamenduko (egun 1215/2012 Erregelamendua) interpretazioetatik eta Bruselazko Hitzarmenetik datozen sententziak ugariak eta kalitate juridiko handikoak dira. Auzitegiek interpretaziorako erabilitako oinarria “definizio autonomoa” deiturikoa da, hots, irizpideen interpretazioa modu autonomoz eta inolako Zuzenbide nazionalen oinarritzen ez dena.

44/2001 Erregelamenduaren (egun 1215/2012 Erregelamendua) interpretazio autonomoak hainbat abantaila ditu:

(1) Estatu kideetan 44/2001 Erregelamenduaren (egun 1215/2012 Erregelamendua) interpretazio eta ezarpen uniformeak bermatzen du.

(2) Europar Batasunean jarduten ekintzaile ekonomikoentzako onuragarria da, testuinguru legal bakarra baitute, interpretazio uniformera loturikoa, eta honek kostu legala murriztu eta segurtasun juridiko handia ekartzen baitu.

(3) Estatu kideen auzitegien lana faboratzen du, 44/2001 Erregelamenduko (egun 1215/2012) kontzeptuen katalogo bakarra erabili baitezakete.

V. 1215/2012 Erregelamenduak beste Nazioarteko Hitzarmenekin dituen harremanak

Ondorengo esaldietan 1215/2012 Erregelamendua eta beste tresnen elkarbizitza aztertuko da:

(1) Europar Batasuneko Estatu kideak nazioarteko eskuduntza judiziala eta ebazpen judizialen ezagutza arautzen duten beste nazioarteko lege-tresnen parte ere badira.

Harremanak

(2) Estatu kideen arteko hitzarmen aldekoak: 1215/2012 Erregelamendua bi edo Estatu kide gehiagoren arteko hitzarmen aldekoen gainera dago. 1215/2012 Erregelamenduko aplikazio materialian agertzen ez diren kasuetan, aldeko hitzarmenak aplikagarri izaten jarraitzen dutelarik.

(3) Nazioarteko eskuduntza judiziala eta 44/2001 Erregelamendua (egun 1215/2012 Erregelamendua) indarrean jarri aurretik emandako ebazpenen ezagutza materialari nazioarteko hitzarmen aldekoak: Hitzarmen hauek 44/2001 Erregelamenduaren (egun 1215/2012 Erregelamendua) gainera agertzen dira, beti ere, Estatu kidea hitzarmen horren parte denean eta hitzarmena 44/2001 Erregelamenduaren (egun 1215/2012 Erregelamendua) lehenagokoa bada.

Dena den, nazioarteko Hitzarmen hauen gailentasunek ezingo dute 44/2001 Erregelamenduan (egun 1215/2012 Erregelamendua) biltzen diren EBrako materia zibil eta merkataritza materietako kooperazio judizialeko printzipioa gutxietsi. Honegatik, Hitzarmenak materia zibil eta merkataritza materietako ebazpenen zirkulazio askatasuna, aurrez ikusiko diren jurisdikzio-organismo eskudunak, parte hartzen dutenentzako segurtasun juridiko, administrazio juridiko on eta egokia, eta prozedura paraleloen murrizketa maximoa eta EBko justiziaren konfiantza printzipioak errespetatu beharko ditu (Ikus



2010eko maiatzaren 4ko Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko Sententzia, C 533/08 TNT Express).

(4) 44/2001 Erregelamenduaren (egun 1215/2012 Erregelamendua) ondorengo kasu espezifikoaren inguruko Hitzarmen aldeaniztunak: Hitzarmen hauek ez dira inoiz ez 44/2001 (egun 1215/2012 Erregelamendua) Erregelamenduaren gainetik agertuko.

(5) 1988ko irailaren 16ko Luganoko Hitzarmena eta 2007ko urriaren 30ko Lugano II Hitzarmena: Bruselazko Hitzarmenaren arrakastak Luganoko Hitzarmena eragin du Europar Merkataritza Libreko Erkidegoko (EFTA) Estatuentzako.

2007ko Lugano II Hitzarmenaren inguruko puntuak:

(a) Hitzarmen hau soilik Islandia, Norvegia, Danimarka eta Suitzaren arteko harremanetan aplikagarria da, baita hauek EBko gainerako Estatuekin dituzten harremanetan ere.

(b) 2010 urtean EB, Norvegia eta Danimarkaren artean indarrean jarri zen, eta 2011 urtean Islandiarentzat ere indarrean jarri zen.

(c) Luganoko Hitzarmenaren helburua hitzarmeneko xedapenak 1215/2012 Erregelamenduan agertzen direnekin lerrokatzean oinarritzen da.

(d) Luganoko Hitzarmena ezartzen diren kasuak eta ez 1215/2012 Erregelamenduan:

a) Demandatua Hitzarmeneko Estatu batetan (Suitza, Islandia edo Norvegia) helbideratua dagoenean.

b) Eskumen eskusiboak edo ageriko sumisioa dagoenean, eta Hitzarmeneko Estatu kide batetako auzitegi bati eskusiboki konpetentziak ematen zaizkionean.

c) Auzibitarteko eta loturazko kasuak.

d) Ezagutza eta *exekuzio*-ari dagokienean, Luganoko Hitzarmena aplikagarri izango da jatorriko Estatu EBko kide ez den Estatu bat bada, baina bai Luganoko Hitzarmeneko kidea.

VI. 1215/2012 Erregelamenduaren aplikazio eremu espaziala

1215/2012 Erregelamendua Estatu kide guztietako lurralde osoan zehar aplikagarria izango da Europar Batasuneko Funtzionamendu Tratatuko 355 artikuluan azaldutako moduan. Zehaztasun batzuk azaltzea ezinbestekoa delarik:

(1) *Estatu kideak*. Europar Batasuneko Estatu kideetan garatzen eta ematen dituzten auzitegi eta autoritate oro 1215/2012 Erregelamendua ezartzera behartuak daude. “Estatu kide” terminoak Estatu kide guztiak biltzen ditu, Danimarka ere barnean dagoelarik Europar Batasuna eta Danimarkaren arteko 2005eko urriaren 19ko Akordioaren ondorioz.

(2) *Estatu kide bakoitzaren lurraldearen zehaztapena*. “Estatu kideen lurraldearen” terminoa Nazioarteko Zuzenbide Publikoko arauengatik zehazten da. Estatu kide batetako kontinente alboko plataforma gainean dauden instalazioak “Estatu kide batetako lurraldean” daudela ulertu behar dugu. (2002ko otsailaren 27ko Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko Sententzia, Weber).

VII. 1215/2012 Erregelamenduaren aplikazio denboraren eremua

1215/2012 Erregelamendua 2015 urteko urtarrilaren 10ean jarri zen indarrean. Atzera eman ezingo den Erregelamendua delarik.



VIII. 1215/2012 Erregelamenduko aplikazio materialaren eremua

1. Azalpen orokorrak

1215/2012 Erregelamendua ondorengo ezaugarriak dituzten auzietan nazioarteko eskuduntza judiziala zehazteko aplikatzen da:

- (a) Nazioarteko auziak.
- (b) Materia zibil eta merkataritza materia objektu printzipal duten auziak.

Era berean, 1215/2012 Erregelamendua beste ondorengo faktore hauetan ere aplikagarria da:

- (a) Aldeen nazionalitatea: 1215/2012 Erregelamendua Estatu kide batetako nazionala den edo ez den pertsona orori aplikagarria da.
- (b) Nazioarteko eskuduntza judiziala zehaztu nahi duen jurisdikzio-organismoari: gaiaz ezagutzen duen auzitegia dagokion jurisdikzio ordena garrantzirik gabekoa da. Honegatik, 1215/2012 Erregelamendua zigor auzitegi batek ezagutzen dituen ekintza zibilei aplikagarria da (2008ko martxoaren 28k Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko Sententzia, Krombach).
- (c) 1215/2012 Erregelamendua ekintza indibidualei izaera kolektiboa duten ekintzei bezala aplikagarri zaie.
- (d) 1215/2012 Erregelamendua ondorengo prozesu motetan aplikagarria da:
 - a) Prozedura deklaratioa.
 - b) Prozedura exekutiboa.
 - c) Judizio monitorioa (barne zuzenbidea).
 - d) Prozedura bereziak.
 - e) Judizio aldagarria.
 - f) Aurretiazko diligentziak hartzea.

2. Nazioarteko auziak

Europar Batasuneko Tratatu 65. artikulua, 1215/2012 Erregelamenduaren sorburu dena (gaur egun Europar Batasuneko Funtzionamenduaren Tratatu 81. artikulua dena), “lurraz bestaldeko eragina duten” materia zibileko kooperazio judizial eremuko neurriei erreferentzia egiten die. Hau dela eta, barne kasuko edo guztiz nazionalak diren kasuetako determinazio judizialaz ari garenean, hauek ez dira 1215/2012 Erregelamenduaren bitartez arautuko, Estatu kide bakoitzeko barne produkzioko prozedura Zuzenbidearen bitartez baizik.

Ez dezagun ahaztu 1215/2012 Erregelamenduak arauturiko nazioarteko izaera duten auziak zehaztea, eztabaidagarria den gaia dela; Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak “atzeritar elementuaren tesia” jarraitu behar dela adierazi du. Tesi honen arabera, “1215/2012 Erregelamenduaren menpe agertzen diren nazioarteko kasuak atzeritar elementuren bat agertzen duten kasuak izango dira”, elementu hori eta herrialdea zein den independente izanik, baita Estatu kide den edo ez. Ondorioz, 1215/2012 Erregelamendua aplikagarria izango da nahiz eta aldeak nazionalitate berekoak izan, edota egoitza Estatu berdinean izan, beti ere atzeritar elementuren bat badago.

3. Materia zibil eta merkataritza materietako auziak



1215/2012 Erregelamenduko 1.1 artikulua erregelamendu hau soilik materia zibil eta merkataritza materian ezarriko dela zehazten du. Beharrezkoa da materia zibil eta merkataritza materiaz ari garenean zer esan nahi dugun ezagutzea:

(1) 1215/2012 Erregelamenduak ez du zehazten zer den materia zibil eta merkataritzakoa.

(2) Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak materia zibil eta merkataritzako kontzeptua berezkoa dela azaltzen du, 1215/2012 Erregelamenduaz autonomo eta eskusiboa.

(3) Ondorioz, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ez du definizio orokor bat eman materia honen inguruan, baina kasu zehatz batzuetan auzi bat materia zibil edo merkataritzako materia den ala ez adierazten du.

(4) Orokorrean, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak materia zibil eta merkataritza zibilaz zer ulertu behar dugunaren inguruko interpretazio zabal bat egin du. Baita 1215/2012 Erregelamendutik at geratzen diren kasuen interpretazio zehatz bat ere, Zuzenbide Publikoak, aduana gaiak bestea beste, zein Zuzenbide Pribatuak izan. Hala ere, ikusiko den moduan, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak zergatia azaldu gabe 1215/2012 Erregelamenduko aplikaziotik at dagoela interpretatu dituen kasuak ere badaude.

(5) 1215/2012 Erregelamenduko 1. artikulua 1215/2012 Erregelamenduko aplikazio materia eremuaren ezkutuko bazterketa bat egiten du. Bazterturik geratzen diren materietako batzuk Zuzenbide Publiko materialak dira, eta beste batzuk arau espezifiko arauturik dauden materia zibil eta merkataritzakoak dira. Gainera, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak esan duen bezala 44/2001 Erregelamenduak (egun 1215/2012) beste hainbat materien ezkutuko bazterketa ere egiten du.

1215/2012 Erregelamenduak arautzen ez dituen materiak

(1) 1215/2012 Erregelamenduko 1.1 eta 2 artikuluek hainbat materietan 1215/2012 Erregelamenduko aplikazio eremua espresuki baztertzen dute:

- (a) Fiskalitatea, aduana eta administrazio materiak.
- (b) Pertsona fisikoen egoera eta gaitasuna.
- (c) Ezkontza erregimenak.
- (d) Testamentuak eta oinordetzak.
- (e) Kiebra, kebratzaile eta hartzekodunen arteko hitzarmenak eta gainerako prozedurak.
- (f) Gizarte-segurantza.
- (g) Arbitrajea.

Bestalde, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak pertsona pribatu eta botere publikoaren menpe jokatzen duten autoritate publikoen arteko auziak (*acta jure imperii*) materia zibil edo merkataritza materiak ez direla zehazten ditu, beraz, hauek ere 1215/2012 Erregelamendutik at geratzen dira. 2011ko ekainaren 18tik aurrera, elikagai betebeharrak ere baztertuak dira, orain 4/2009 Erregelamenduaren bitartez arautzen baitira. Hala ere, elikagai boluntarioak, inolako betebeharririk ez dagoenean akordatu direnak, 1215/2012 Erregelamenduaren menpe agertu behar dira, ez baitira harreman familiarretik eratorritako elikagai betebeharrak, aldeek libreki onarturiko kontratuzko betebeharrak baizik.

(2) Aurreko bazterketan dauden kasu hauek ondorengo 3 arazoitariko batzuekin ados daude:

- (a) Hainbat materia Zuzenbide Publiko materia argiak dira. Adibidez: auzi fiskalak, ...
- (b) Beste materia batzuk zibil eta merkataritzakoak izan arren ez dira Familia Zuzenbide barnekoak, 1215/2012 Erregelamenduan bildutakoak izan ezik



nazioarteko eskuduntza judizialeko berezko foruak behar dituzten materiak dira. Adibidez: oinordetza auziak, dibortzio auziak, ...

(c) Beste materia batzuk zibil eta merkataritzakoak dira, baina ondare-materiak dira, eta beste tresna legal espezifiko arautuak daude. Honegatik, materia hauei 1215/2012 Erregelamendua aplikatzea ez litzateke gomendagarria izango. Adibideak: kaudimen-gabeziako prozedurak -1346/2000 Erregelamenduaren objektua-, arbitrajea -Nazioarteko hainbat Hitzarmenen bitartez arautua-, ...

1215/2012 Erregelamendua arauturiko materiak, eta zalantzazko kasuak

Erregelamendua nazioarteko testuinguruan sorturiko kasu edo negozioetan da aplikagarria. Hots, pertsona partikularren artean sortutako auziak edo titulu partikular erantzen duten subjektuak, eta ekintza ekonomikoarekin loturiko materiak, ez Familia Zuzenbideko ekintzak. Zehazki kontratuzko eta kontratuz kanpoko betebeharrak, hainbat sozietate aspektu eta zuzenbide errealak, beti ere aipaturiko salbuespenak egonik. Hala ere, hainbat zehaztasun egitea oraindik ere beharrezkoa da. 1215/2012 Erregelamendua ondorengo materietan da aplikagarria:

- (a) Dohaintzak, oinordetza izaera ez dutenean -heriotza ondorengo dohaintza egitea-, hauek kanpo geratzen baitira.
- (b) Trust, oinordetza izaera ez dutenean, kanpo geratzen baitira.
- (c) Lan Zuzenbidetik eratorritako auziak (1979ko azaroaren 13ko Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko Sententzia, Sanicentral), nahiz eta Erregelamendua Gizarte-segurantzako auziak ez arautu.

IX. 1215/2012 Erregelamenduaren aplikazio eremu pertsonala

1215/2012 Erregelamendua Europar Batasunak sorturiko arautegia da. Honegatik, 1215/2012 Erregelamendua soilik EBrekin lotura duten auzietan aplikagarri izango da. Modu honetan, aldeek bere harreman juridikoetan Erregelamenduaren aplikazioa erraztasunez aurrez ikusi dezakete. Horrekin guztiarekin hainbat ondorio ateratzen ditugu:

(1) *1215/2012 Erregelamendua, barne merkataritza eta europar espazio judiziala*: Estatu kide bakoitzean nazioarteko eskuduntza judiziala eta erabakien lurraldez kanpoko baliagarritasunaren inguruko arau nazional ezberdinak egoteak barne merkataritzako funtzionamendu egokirako oztopo handi bat bilakatzen da. Honegatik, 1215/2012 Erregelamenduaren helburua Estatu kide barnean nazioarteko eskuduntza judizialeko eta erabakien lurraldez kanpoko baliagarritasunaren inguruko arau uniformeak egitea da, modu honetan barne merkataritza eta europar espazio judizial egokiago bat bermatuz. 1215/2012 Erregelamendua ez da soilik elementu guztiak EB barnean dituzten auzietan aplikatzen, ezta EBko zirkulazio askatasuna duten harreman juridikoetatik datozen auzietan ere. 1215/2012 Erregelamendua barne merkataritzan edota europar espazio judizialarekin lotura duten harreman juridikoetatik eratorriak diren auzi guztietan aplikagarria izango da.

(2) *1215/2012 Erregelamenduaren aplikazio integrala eta baztertzailerak EBrekin guztiz loturik dauden auzietan*: 1215/2012 Erregelamendua EBrekin guztiz loturik dauden auziei osotasunez aplikatzen zaie, Estatu kideen arautegi nazional guztiak baztertuz. Auzi hauek demandatuak egoitza edo helbidea Estatu kide batetan duenean ematen dira (1215/2012 Erregelamenduko 4. artikulua).

(3) *1215/2012 Erregelamenduaren aplikazio partziala eta ez baztertzailerak EBrekin lotura osoa duten auzietan*: 1215/2012 Erregelamendua ere EBrekin lotura bat agertzen duten harreman juridiko guztietan aplikagarria izango da, nahiz eta hirugarren Estatu bati ere loturik egon (erdi-lotutako auziak). Europar Batasunarekin erdi-loturik dauden auzi hauek



demandatuak egoitza edo helbidea Estatu kide batean ez duenean, baina EBrekin beste motatako lotura bat agertzen denean ematen da, aldeak Estatu kide batetako auzien menpe jarri direlako edota auziaren objektua Estatu kide baten jurisdikzioko eskumena eskusiboa delako. EBrekin erdi-loturik dauden kasuetan auzitegien kompetentzia Estatu kide bakoitzeko barne produkzioko nazioarteko eskuduntza judizialeko arauen arabera zehatzen da, baina 1215/2012 Erregelamenduko hainbat xedapen Estatu kideen auzitegien nazioarteko eskuduntza judiziala ere zehatzen dute. Horregatik, demandatuak Estatu kide baten lurraldean egoitza edo helbidea izan edo ez, ez da izango 1215/2012 Erregelamenduko aplikazio eremua zehaztuko duen irizpidea (Lugano II Hitzarmenaren inguruko POCAR txostena, 13 zenb. 2009ko abenduaren 13a, DOUE).

(4) *EBrekin loturarik ez duten auziak*: Auzia EBrekin loturarik ez duenean 1215/2012 Erregelamenduak bere ez aplikazioa zehatzen du. Ondorioz, 1215/2012 Erregelamenduak ez die Estatu kideetako auziei nazioarteko eskuduntza judizialik ematen. Kasu hauetan, Estatu kide batetako auzitegiak gaiak ezagutzeko eskudun diren ala ez Estatu kide bakoitzaren barne produkzioko nazioarteko eskuduntza judizialeko arauen bitartez erabakitzen da.

Honela, Erregelamendua Europar Batasunarekin loturik dauden egoeretan aplikagarria da. Hainbat kasu bereizi behar dira:

(1) *44 lurraldean helbideratutako demandatzailea eta 44 lurraldean ere helbideratutako demandatuaren arteko ekintzak*: Nazioarteko eskuduntza judiziala zehazteko 1215/2012 Erregelamenduko nazioarteko eskuduntza judizialeko arauak ezartzen dira. Ez dira aplikagarri izango gaia ezagutzen duten auzitegieta herrialdeetako barne produkzioko arauak, ezta nazioarteko eskuduntza judizialeko gehiegizko foruak dituzten Estatu kideen barne produkzioko arauak ere ez.

(2) *44 lurraldean helbideraturik ez dagoen demandatzaile eta 44 lurraldean helbideratua dagoen demandatuaren arteko ekintzak*: Nazioarteko eskuduntza judiziala zehazteko 1215/2012 Erregelamenduko nazioarteko eskuduntza judizialeko arauak ezartzen dira (2000ko uztailaren 13ko Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko Sententzia, Josi). Gaiak ezagutzen duten auzitegieta herrialdeen barne produkzioko arauak bazterturik geratzen dira.

(3) *44 lurraldean helbideratutako demandatzailea eta 44 lurraldean helbideraturik ez dagoen demandatuaren arteko ekintzak*: Nazioarteko eskuduntza judiziala zehazteko ekintza gertatzen den herrialdeko barne produkzioko nazioarteko eskuduntza judizialeko arauak aplikatzen dira.

(4) *44 lurraldean helbideraturik ez dagoen demandatzaile eta 44 lurraldean helbideraturik ez dagoen demandatuaren arteko ekintzak*: Nazioarteko eskuduntza judiziala zehazteko ekintza agertzen den herrialdeko barne produkzioko nazioarteko eskuduntza judizialeko arauak aplikatuko dira (1215/2012 Erregelamenduko 4.1 artikulua). Hala ere, barne produkzioko arau hauetaz gain, 1215/2012 Erregelamenduko 24. artikulua -Estatu kide batetako kompetentzia eskusiboaren inguruko foruak- eta 26 artikulua -Estatu kide batetako auzitegien aldeko ezkutuko sumisioaren forua- ere aplikatuko dira beti.

(5) *Kautelazko neurrien eta behin-behineko neurrien eskaera Estatu kide batetako autoritate judizialen aurrean*: Estatu kide baten auzitegien nazioarteko eskuduntza judiziala Estatu kide horretako kautelazko edo behin-behineko neurriak ezartzen dituen legeagatik zehatzen da. 1215/2012 Erregelamenduko 35. artikulua aplikagarria izango da Estatu kideen auzitegiek barne produkzioko arauetan inolako nazioarteko eskuduntza judiziala ez badute. Aldeen helbidea ez dute eraginik izango (1998ko azaroaren 17ko Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko Sententzia, Van Uden, FJ20).



X. Nazioarteko Eskuduntza Judiziala 1215/2012 Erregelamenduan: Sistemaren funtzionamendu orokorra

1215/2012 Erregelamenduko Estatu kideen auzitegiek eskudun deklaratuko dira 1215/2012 Erregelamenduko ondorengo foruetan jasotako nazioarteko eskuduntza judiziala ematen zaienean:

- (1) Konpetentzia eskusiboa objektu duten foruak (24. artikulua)
- (2) Aldeak tribunalari azaldutako ageriko eta ezkutuko sumisioaren forua (25. eta 26. artikulua)
- (3) Materia arrazoï bezala duten hainbat foru berezi (7-23 artikulua)
- (4) Demandatuaren helbidearen forua auzitegia dagoen Estatu kidean (4. artikulua)

Erregelamenduak foru desberdinak biltzen dituela ikusirik, hauek Estatu kide ezberdinetako auzitegiei nazioarteko eskuduntza judiziala ematea posible da. Erregelamenduak eskumenen hierarkia bat finkatzen du, modu honetan foru batzuk besteak baino indar gehiago izanik, eta emaitza batzuk besteen gainetik agertuz.

Adibidez: Egoitza soziala Berlingen duen enpresa batetako kontratatzaile bat eta Madrilen egoitza soziala duen beste kontratatzaile bat aldean arteko akordioa egiten dute Pariseko Auzitegiek eskudun izango direla esanez: Honek espainiar auzitegi eta alemaniar auzitegiak eskudun izatea eragozten du, sumisioaren forua demandatuaren helbidearen foruaren gainetik geratzen baita (1215/2012 Erregelamenduko 4. artikulua).

Zehaztasun handiagoarekin ondorengoak baieztatzea beharrezkoa dugu:

(1) Materia arrazoitzat duten foruak eta Demandatuaren helbidearen auzitegia dagoen Estatu kideren foruak, beste Estatu kideen auzitegien nazioarteko eskuduntza judiziala ematen diren sumisio foruen aurrean amore ematen dute, eta aldean sumisioaren forua beste Estatu kideen auzitegien alde ere amore ematen dute.

(2) Sumisio forua foru eskusiboen alde amore ematen dute. Estatu kide batetako auzitegi bat ezin du bere nazioarteko eskuduntza judiziala sumisio foruan oinarritu ezagutzen ari den gaia beste Estatu kide batetako auzitegi bati nazioarteko eskuduntza judiziala ematen duen foru eskusiboaren gaia bada.

(3) Materia arrazoitzat duten foru bereziak eta demandatuaren helbidearen forua aukerakoak dira: aktoreak demandatuaren aurkako ekintza bi foru hauetariko baten aurrean ekin dezake.

XI. Foru eskusiboak

1. Ezaugarriak eta materien harremana

Konpetentzia eskusiboko foruak 1215/2012 Erregelamenduko 24. artikuluan jasotzen dira. Auziaren materia objektua arau horretan zerrendaturik badago, 24. artikulua zehatzen dituen Estatuaren jurisdikzio-organoak soilik izango dira eskudun. Auzigaien egoitzak edo helbideak garrantzirik gabekoak dira. Eskumen eskusibo hauen ezaugarriak ondorengo hauek dira:

(1) *1215/2012 Erregelamenduko 24. artikulua izatera inperatiboa:* Auziaren objektua 1215/2012 Erregelamenduko 24. artikulua gatik estalia badago, arau hori inolako baldintzarik gabe ezarriko da, aldean egoitzak (1215/2012 Erregelamenduko 4.1. eta 24. artikulua), eta aldean ageriko edo ezkutuko sumisioa garrantzirik gabe geratuz, beste Estatuaren auzitegien alde eginez. Itun hau ez da baliagarria izango (1215/2012 Erregelamenduko 25 eta 26 artikulua, eta 2002ko otsailaren 11ko Auzitegi Gorenaren Sententzia). Hala ere, 1215/2012 Erregelamenduko 24. artikuluko objektu den kasu batetan, arau horrek Estatu zehatz batetako auzitegiei konpetentzia eman diezaike. Aldeek



Estatu horretako auzitegi eskudunaren hautaketa itundu dezakete, beti ere itun horrek 1215/2012 Erregelamenduko 24. artikulua urratzen ez badu. 1215/2012 Erregelamenduko 24. artikulua arabera eskusiboki eskudunak diren Estatuaren Prozedura Zuzenbideak sumisioaren itun hori baliagarria den ala ez zehaztuko du.

(2) *Stricto sensu nazioarteko eskuduntza judizialeko araua*: 1215/2012 Erregelamenduko 24. artikulua auzitegi estatal eskudunak zehazten ditu, (frantsesak, espainiarrak, grekoak, ...), baina ez du zehazten auzitegi zehatzik. 1215/2012 Erregelamenduko 24. artikulua finkaturiko Estatuaren Prozedura Zuzenbidea izango da auzitegi eskudun zehatza finkatuko duena.

(3) Foru eskusiboen justifikazioa: Materia hauek eskumena eskusiboen foruen objektua dira materia horiek Estatu subiranoarekin lotura zuzena dute, edo Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak esaten duen bezala, Estatu kideen lurraldearekin. Interes estatala interes pribatuen gainetik geratzen da.

(4) 1215/2012 Erregelamenduko 24. artikuluko interpretazioa: 1215/2012 Erregelamenduko 24. artikuluan agertzen diren materiak *numerus clausus* osatzen dute. Modu murriztaile batean interpretatzen dira. 1215/2012 Erregelamenduko 24. artikulua aplikazioa ere modu murriztaile batean eman behar da, 1215/2012 Erregelamenduko kompetentziaren sistema orokorraren salbuespena bat baita.

(5) *Ebazpenen nazioarteko baliagarritasunaren ondorioak*: Edozein ebazpenen onarpena ukatuko da auzitegiak kompetentzia eskusiboen forua errespetatu ez badu.

(6) *Gainerako Estatu kideen ondorioak*: Materia eskusiboak ezagutzen dituzten Estatu batetako auzitegi bat, eta hauek beste auzitegi bat erabakiarazten badute, ofizioz eskumenik ez duela erabakiko da.

(7) *Kontzientzia orokorra Forum = Jus = Sententziaren exekuzio lekua*: Erregelamenduko 24. artikulua bitartez orokorrean bere auzitegiak eskudun diren Estatuaren eskumenak sortzen du ebazpena exekutatu behar den Estatuaren inguruan. Jus eta foruaren arteko kontzientzia: auzitegiak dagokion Estatuaren legea aplikatuko du, bereziki higiezin zuzenbide errealearen inguruko kasuetan.

(8) *24 artikuluan dauden materien erlazioa*:

(a) Higiezin Zuzenbide errealek eta ondasun higiezin errentamendua: higiezina kokaturik dagoen lekua.

(b) Sozietate eta pertsona juridikoen baliagarritasuna, deuseztatzea edo disoluzioa.

(c) Erregistro publikoetako inskripzioen baliagarritasuna.

(d) Patenteen inskripzioak edo patenteen baliagarritasuna, diseinu edo marrazki eta modeloak, eta erregistroarekin zerikusia duten gainerako zuzenbideak.

(e) Ebazpen judizialen exekuzioko materiak.

2. Kasu espezifikoak: ondasun higiezin errentamendu kontratuak

Helbidea kontuan hartu gabe, ogasun higiezin errentamendu kontratuaren materialian soilik higiezina kokatzen den Estatu kideko auzitegiak izango dira eskudun. Kontuan izatekoak dira aurretik azaldutako salbuespenak. Alegia, ogasun higiezin errentamendu materialiko kontratuak *erabilpen partikularrerako* direnak, eta *gebienex sei bilabeteko epea dutenak*, demandatua helbideratutako Estatu kideko auzitegiak izango lirarteke eskudun, beti ere *errentatzailea pertsona fisiko* balitz, eta gainera, *jabea eta errentatzailea Estatu kide berdinean helbideratuak* egongo balira.



3. Sozietate materia

Bestalde, gogoan izan sozietate eta pertsona juridikoen baliagarritasun, deuseztatze eta disoluzio materiari, baita beren organoen erabakien baliagarritasun materiari, sozietate edo pertsona juridiko helbideratua dagoen Estatu kideko auzitegiak izango direla sorturiko nazioarteko gatazka pribatua ezagutzeko eskumena izango dutenak. Beraz, helbidea zehazteko auzitegiak bere Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko arauak ezarriko ditu -kontuan izan gure barne arauko helbidea, eta Erresuma Batuko berezitasunak-.

4. Ukiezinak diren inskripzio eta propietateak

Erregistro publikoetan eginiko *inskripzioen* baliagarritasuna materiari dagokionean, ez da inolako kasutan islaturik agertzen, hala ere, erregistroa aurkitzen den Estatu kideko auzitegiak izango dute eskumen osoa.

Patenteen inskripzio eta baliagarritasun materiari dagokionean, marka, diseinu edo marrazki eta modeloak, eta erregistratzearekin zerikusia duten gainerako zuzenbideetan, erregistroa eman edo azaldu den Estatu kideko auzitegiak izango dira eskudun.

5. Ebazpen judizialen exekuzioak

Exekuzio gertatzen den Estatu kideko auzitegiak izango dira eskudun gaiaz ezagutzeko.

XII. Ageriko sumisioaren forua

Sumisioaren akordioa nazioarteko harreman juridiko pribatuan esku-hartzen duten aldean arteko itun bat da. Modu honetan, harreman juridikoan interesa duten horiek sor zitezkeen etorkizuneko gatazken aurrean zein jurisdikzio-organo izango den eskudun zehazten dute.

Zentzu honetan, bi gauza azaltzea ezinbestekoak dira:

(1) Ageriko eta ezkutuko sumisioen arteko bereizketa: kontuan izan sumisioa ageriko akordio baten bitartez egin daitekeela, eta honela zehazten du 1215/2012 Erregelamenduko 25. artikulua. Erregelamendu bereko 26. artikulua azaltzen duen ezkutuko akordio baten bitartez baita ere.

(2) Sumisio foruaren abantailak:

(a) Aldeen artean sor zitezkeen auziak auzitegi berdinen baten aurrean biltzea ahalbidetzen die.

(b) Aldeen segurtasuna areagotu eta handitu egiten da, betetzen ez diren kasuetan auzia zein jurisdikzio-organoren aurrean hasi behar duten aurretik ezagutzen baitute.

(c) Era berean, aldeei edozein gatazkaz erabakitzeko hobekien kokaturik dagoen auzitegia aukeratzea ahalbidetzen die -aldeek gatazkak konpontzeko azkartasuna balora dezakete, azken ebazpenaren kalitate handiena, ... eta honelako gauza zehatzak ezagutu ditzakete-.

(d) Ageriko sumisioko akordioak 1215/2012 Erregelamenduko arauen arabera gaiaz ezagutu zezakeen beste gainerako auzitegien kompetentzia baztertzen du. Akordio edo sumisio itun hori eragina izateko interesaturiko aldeak hau frogatu beharko du, auzitegiek ofizioz ez baitute ageriko sumisio horren akordioa ezagutzen.



(e) Ageriko sumisioa aldeentzat beharrezko izaera hartzen du. Hots, ezinbestean hauek akordatutako auzitegiaren menpe jarri beharko dira. Bide honetatik bi gauza azpimarratu behar ditugu: a) aldeen arteko ondorengo sumisio akordioak (agerikoa edo ezkutukoa) lehendabizi eginiko sumisio akordioa indargabetu dezake; b) aldeek auzitegi bat hautatu eta itundu bazuten, akordioa bete behar da -logikoki, pakto edo akordio bat egiten bada, betetzeko izan ohi da, beraz, aldetako bat, gatazka sortu denean, forua onuragarri ez zaiola erabakitzen badu, beharrezkoa dela jakin beharko du-.

(f) Kontratuaren deuseztatzeak sortzen dituen ondorioei dagokienean, kontratu horren deuseztatzeak sumisioaren baliagarritasun klausulan ez du eraginik izango, beraz, independenteki jokatzen dute eta baliagarritasun irizpide propioak dituzte.

25. artikulua ageriko sumisioa arautzen du, eta ondorioz, bitako inork ez Estatu kide batean helbideratuta egon ez arren, aldeak beren harreman juridikotik sor daitezkeen gatazkek ezagutzeko zein Estatu kideko auzitegiak izango diren eskudun zehaztuko balute, auzitegi hori edo horiek eskudun izango dira. Eskumen hau eskusiboa da, aldeek aurkakoa esaten ez badute behintzat. Akordioa formalizatzeko garaian ondorengo irizpidetariko bat betetzea ezinbestekoa da:

- a) Ahozkoa edo idatzizkoa, egiaztapen idatzi batekin.
- b) Bien artean denboran dirauen harreman juridiko bat badute beren artean akordatutakoari egokitutako forma emanaz.
- c) Nazioarteko merkataritza arauak jarraituz, aldeek ezagutzen duten erabilpen konforme baten moduan, edo gutxienez beren profesio edo ekintzagatik ezagutu beharko luketena.

Bestalde, akordioaren erregistro iraunkorra ematen duen frogarria, elektronika bidez eginiko transmisio idatzia bada -burofaxak, jakinarazpenak ...-, aintzat hartu beharko da.

XIII. Ezkutuko sumisioaren forua

Ezkutuko sumisioaren forua, arau orokor bezala, demandatua demandatzaileak demanda jarritako auzitegi aurrean agertzen denean aplikagarri izango da, beti ere auzia erantzungo duen auzitegia bada. Hala ere, agerraldiak objektu eskumena ukatzea badu, edo 24. artikulua araberan beste jurisdikzio eskudun bat egongo balitz, arau ez litzateke aplikagarri izango.

Ezkutuko sumisioaren erregimen juridikoa:

(1) 1215/2012 Erregelamenduko 26. artikulua soilik aplikagarria da, Erregelamenduko eremu materialarengatik estaliak dauden nazioarteko auziekin harremana badute.

(2) Konpetentzia eskusiboko materia objektu duten auzietan ezkutuko sumisioak ezingo du ekin (24 eta 26 artikulua).

(3) Ezkutuko sumisioa egiaztatzen den auzi, logikoki, ageriko sumisioa egiaztatzen den momentuan agertu beharko da.

(4) Ondorengo ezkutuko sumisioa aurreko ageriko sumisioaren gainetik geratzen da, ageriko hau indargabeturik geratuz.

(5) Demandatuak auzitegiaren aurrean nazioarteko eskuduntza judizialaren aurka egiteko agertzen denean, ez du bere aldetik ezkutuko sumisiorik agertzen. Era berean demandatuak nazioarteko eskuduntza judiziala aurkaratzen badu ez da ageriko sumisiorik emango. (Besteen artean ikus 1981eko ekainaren 24ko Europar Batasuneko Auzitegiaren Sententzia, *-Elefante-*).

(6) 1215/2012 Erregelamenduko 26. artikulua soilik 1215/2012 Erregelamenduko Estatu kideen auzitegiei nazioarteko eskuduntza judiziala emateko izango da aplikagarri. Ez



da beharrezkoa izango auzia eta dagokion jurisdikzio-organoaren arteko lotura objektiborik egotea.

(7) Seguru kontratu, Lan kontratu eta kontsumo kontratuetan ageriko sumisioa ematea posible da.

(8) Aldeen artean gatazka aniztasuna ematen denean, dagokion tribunala nazioarte mailan eskuduna izango da demandatuak auzitegiaren eskumena diferentzia juridiko guztietan onartzen badu.

(9) 26 artikuluan ezartzen den ageriko sumisioa aldean helbidea kontuan izan gabe jokatzen du, aldeek hirugarren Estatu batean helbideratuak egotean ere. Honen azalpena, 1215/2012 Erregelamenduak aldean helbidea edo egoitza kontuan hartzen ez duela da.

XIV. Demandatuaren helbidearen forua

Demandatuaren helbidea foru orokor bezala sailkatua izan da, prozesuaren objektua -kontratuko betebeharrak, kontratuz kanpoko betebeharrak, eta abar-, demanda mota, edo lehiatzen diren eskubide eta ekintzen kokalekua -auzia Espainian edo kanpoan ematen den- zein nahi izan ere nazioarteko eskuduntza judiziala ematen baitu.

Honela, 1215/2012 Erregelamenduan biltzen diren salbuespenetan agertutakoa izan ezik, Estatu kide batetan helbideraturik dauden pertsonak, bere nazionalitatean aparte utzita, Estatu horretako jurisdikzio-organoaren menpe egongo dira.

Aintzat izan beharra dago prozesu oro pertsona eta bere jabegoan sartzea ekartzen duela, eta ondorioz, boterea erabiltzeko zilegi den Estatu subjektua bizi den lekua izango da -epaile naturala-. Honekin batera prozedurazko arrazoi ekonomikoak eta jakinarazpenen kostuen murrizketa ere badaude. Baita subjektu bati erreklamatzeko zaiona betetzera derrigortzen zaionean bere jabegoa aurkitzen den tokian egitea, orokorrean helbidearekin bat egingo duena, hoberena dela ikus daiteke.

XV. Materia arrazoitzat duten foru bereziak

1215/2012 Erregelamenduko 7-23 artikulua bitarte jasotako foru berezien oinarritzko ezaugarriak:

(1) Demandatuaren helbidearen foruaren foru alternatiboak dira: sumisio akordio bat ez dagoenean, demandatzaileak demandatuaren aurka bere helbidea dagoen Estatu kideko auzitegien aurrean egin dezake (2. art.) edo, nahiago badu, materia arrazoitzat duten foru bereziek gidatzen duten Estatu kideko auzitegien aurrean. Foru hauek eraso foru bezala ere ezagutzen dira, demandatzaileari beste Estatu kide batetako auzitegiaren aurrean, demandatua helbideratua dagoen Estatuaren ezberdina dena, demanda jartzea ahalbidetzen baitiote.

(2) Materia arrazoitzat duten foru ezberdinak 7-23 artikulua bitarte jasotzen dira.

(3) Auzitegi edota jurisdikzio-organo eskuduna zuzenki zehazten duten foru bereziak dira.



XVI. Behin-behineko eta kautelazko neurriak hartzeko foruak

1215/2012 Erregelamenduko 35. artikulua arabera Estatu kide batetako legean jasotako behin-behineko eta kautelazko neurriak Estatu kideko autoritate judizialei eska diezaiekeela gogora ezazue.

Foru hauek egotearen arrazoiak hauek dira:

(1) Nazioarteko prozedura judiziala denbora luzea iraun dezakete eta honek etorkizuneko ebazpen judizialaren exekuzioan eragina izan dezake.

(2) Denboran dirauen luzapen hori zordunak bere jabetza besterendu, edo balioa murriztea ahalbidetzen du.

(3) Gainera, auzitegiek beren jurisdikzio funtzioa jorratzen duten lurraldean boterea dutela kontuan izan beharra dago, hau da, dagokien herrialdeko lurraldean izango dute beren boterea. Honegatik, zordunak bere jabetza beste Estatu batetara eramán dezake, eta honela, bere jabetzaren exekuzioa saihestu.

(4) Nazioarteko kautelazko neurriak arrisku horiek murriztu nahi dituzte.

Modu honetan, demandatzaileak auzitegi anitzen aurrean kautelazko neurriak eska ditzake:

(a) Gaiak sakonki ezagutzen duen Estatu kideko auzitegiaren aurrean.

(b) Kautelazko neurri horiek akordatzea ahalbidetzen duten legeak dituzten Estatu kideko auzitegiaren aurrean.

Kautelazko igorpeneko foruaren mugak:

(1) Arauak 1215/2012 Erregelamenduagatik estaliak dauden materietan soilik jarduten du, eta ez beste gainerako materietan.

(2) Gainera, eskatutako neurrien objektu eta neurri horiek eskatu diren Estatu kideko auzitegiaren kompetentziaren artean benetako lotura egon behar da.

XVII. Kompetentziaren ofiziozko kontrola 1215/2012 Erregelamenduan

Hainbat kasutan auzitegiak, ofizioz, eskumenik ez duela esan behar du:

(1) Beste Estatu kide batetako auzitegien eskumen eksklusiboak diren auziak (1215/2012 Erregelamenduko 27. art.).

(2) Gaiak ezagutzen duen auzitegiak 1215/2012 Erregelamenduaren arabera kompetentziako foruak ez dituen auziak, eta demandatua Estatu kide batean helbideratuta dagoenean (28. art.).

27. artikulua: *El tribunal de un Estado miembro, que conociere a título principal de un litigio para el que los tribunales de otro Estado miembro fueren exclusivamente competentes en virtud del artículo 24, se declarará de oficio incompetente.*

XVIII. Auzibitarrea 1215/2012 Erregelamenduan

1215/2012 Erregelamenduak estaltzen duen kasu berbera bat, Estatu kide ezberdinetako auzitegietan zain dagoenean europar auzibitarrea ematen da. EB barneko nazioarteko auzibitarreko kasuetan 1215/2012 Erregelamenduak 29. artikuluan jasotzen duen soluzio espezifiko bat ematen du.

Modu honetan, arau horrek esaten duenaren arabera, objektu eta kausa berdina duten demandak Estatu kide ezberdinetako auzitegietan agertzen diren kasuetan, bigarren demandako auzitegiak ofizioz eskumenik ez duela azalduko du, lehen auzitegiaren alde eginaz.



XIX. Elkar lotutako demandak 1215/2012 Erregelamenduan

Erregelamenduko 30. artikulua elkar lotutako demandak arautzen dituen araua da. Modu honetan, kontuan izan Estatu kide ezberdinetako auzitegi ezberdinen aurrean zain dauden elkar lotutako demandak daudenean bigarren demanda azaldu den auzitegiak prozedura bertan behera utzi dezakeela.

Era berean, eta elkar lotutako demanda horien lehen instantzian zain daudenean, ondorengo demandak aurkezten diren auzitegiek inhibititu daitezke, beti ere lehen demanda ezarririk auzitegia demanda horiek ezagutzeko eskudun bada eta bere legeak hori ahalbidetzen badu.

XX. Nazioarteko arbitraje pribatua eta 1215/2012 Erregelamendua

Atal honetan sakondu aurretik hainbat datu garrantzitsu kontuan izatekoak dira:

(1) 1215/2012 Erregelamendua ez da aplikagarria Estatu kideetako auzitegien nazioarteko eskuduntza judizialaren arbitraje materia zehazteko. Nazioarteko trafiko pribatuetatik eratorritako auziak ezagutzen dituzten arbitraje organoen kompetentzia ere ez du zehazten. Gainera, 1215/2012 Erregelamenduko Estatu kideen arteko atzerriko arbitraje-laudoaren ezagutza eta exekuzioa arautzeko ez da aplikagarria.

(2) Arbitraje materia 1215/2012 Erregelamendutik at geratzearen arrazoia nazioarteko arbitraje pribatua arautzen duten nazioarteko hitzarmen anitzak egotea da. Doktrinaren alde baten ustetan, EBko arbitraje materian arautegi legal bat egotea ez da batere beharrezkoa. Hala ere, nire aburuz, ez litzateke aukera txarra izango, bereziki EBk bermatu nahi dituen askatasun eta printzipioak bermatzeko segurtasun juridiko baten beharra eskatzen duelako, honek kalitate handiko arautegi juridiko bat eskatuz.

Nazioarteko arbitraje pribatuari sumisioa, nazioarteko arbitraje deklinatoria eta 1215/2012 Erregelamendua

Aldeek arbitraje hitzarmen bat itundu dezakete, bertan auzia zehaztutako arbitraje organo baten aurrean konpondu beharko litzatekeela azalduko da, eta ez auzitegi estataltan aurrean. Baina alde batek demanda 1215/2012 Erregelamenduko Estatu kide batetako auzitegi baten aurrean ipini dezake.

Materia honetan kontuan izateko datuak:

(1) *Ezinezkoa da ofiziozko kontrola*: demandatua joan den Estatu kideko auzitegiak ezin du ofizioz arbitraje klausula edo hitzarmenaren existentzia, baliagarritasuna eta eragin indargabetzailea ikusi. Modu honetan, demandatzaileak ez badu auzitegiaren nazioarteko eskuduntza judizialaren aurka egiten eta ez badu beharrezko deklinatoria proposatzen, arbitraje hitzarmenak ez du auzitegiaren nazioarteko eskuduntza judizialaren eragina indargabetuko. Ondorioz, auzitegi horiek auzia ezagutzera sartuko dira, 1215/2012 Erregelamenduan jasotako nazioarteko eskuduntza judiziala baitu. Auzia 1215/2012 Erregelamenduko esparru materialaren bitartez estalia dagoen ala ez zehazteko garrantzizko da auziaren objektua. Aldeek auzia arbitraje hitzarmenaren bitartez nazioarteko arbitraje pribatu baten menpe jarri izanak ez du aurreko baieztapena aldatzen.

(2) *Deklinatoria eta arbitrajea*. Arbitraje hitzarmen batetan sortutako deklinatoria ebatzeko eskumena: demandatuak deklinatoria ezarri dezake aldean artean eginiko arbitraje hitzarmenean oinarrituz. Alegia, auzia 1215/2012 Erregelamenduko materia esparruagatik estalia dago, demandatuak jo duen Estatu kideko auzitegia eskuduna izango da auzia arbitraje hitzarmenean agertutakoaren menpe jarri edo ez zehazteko, edo honela ez bada, gaiak ezagutzera sartu beharko da arbitraje hitzarmena baliogabea baita. Ondorioz, auzitegiak arbitraje hitzarmena existitzen ez dela zehazten badu, 1215/2012



Erregelamenduan bildutako nazioarteko eskuduntza judizialeko forua duenez auziaz ezagutzera sartu beharko da.

(3) *Arbitraje hitzarmenaren baliagarritasuna baloratzeko arau aplikagarriak*: ordenamendu juridiko bakoitzeko arauetan oinarrituz baloratu beharko da. Espainian auzitegiak 1958ko New Yorkeko Hitzarmena aplikatu beharko du, honek jasotzen ez duen gauzetarako, berriz, 1961ko Genevako Hitzarmena aplikatuko da, eta gainerako gauzetarako 60/2003 Legea.

Bibliografia

- ÁLVAREZ RUBIO, J. J., “ La regla de especialidad en el artículo 57 del Convenio de Bruselas de 1968 (Reflexiones entorno a la Sentencia del TJCE de 6 de diciembre de 1994)”, *ADM*, XII. bol., 1995, 273-312. orr.
- “ La regla de especialidad como cauce para superar los conflictos normativos entre el Derecho comunitario y los Convenios internacionales en materias especiales”, *La Ley*, 2010eko urriaren 29a, 1-6. orr.
- CALVO CARAVACA, A. L. eta CARRASCOSA GONZÁLEZ, J., *Derecho Internacional Privado*, I. bol., 14. edizioa, Granada, Editorial Comares, 2014.
- FERNÁNDEZ ROZAS, J. C. eta SÁNCHEZ LORENZO, S., *Derecho Internacional Privado*, Nafarroa, Thomson-Reuters/Civitas, 2013.
- GARCIMARTÍN ALFÉREZ, F.J., *Derecho Internacional Privado*, Navarra, Thomson-Reuters/Civitas, 2014.
- RODRIGUÉZ BENOT, A., *Derecho Internacional Privado*, Madril, Tecnos, 2014.
- VIRGÓS SORIANO, M. eta GARCIMARTÍN ALFÉREZ, F. J., *Derecho Procesal Civil Internacional*, Cizur Menor, Thomson-Civitas, 2007.